

BALIO PROPOSAMENA:

Janari tradizionala eskaintzen duen jatetxe bat da. Gure enpresak dituen berezitasunen artean, janari tradizionala, janaria prestatzeko modua eta kantitatea handian zerbitzatzea nabaritzen dira.

Gure zerbitzua besteekiko desberdina da, astean zehar menua eskainiko dugun arren, larunbatetan, "ekitaldi" moduko bat edukiko baitugu. Guk aukeratutako menua eskainiko dugu eta diru kantitate bat ordainduz gero, guk eskainitako 6-7 plater desberdinetatik nahi adina jateko aukera edukiko du bezeroak. Astean zehar beste zerbitzu bat ere eskainiko dugu, zaharren egoitzetara eta jubilatutako dauden pertsonen etxeetara eramango dugu jatetxean sukaldatutako janaria.

Gure enpresako jakiak bertakoak eta naturalak dira, guk ekoitzi eta hazitakoak, beraz, ekologikoki lagungarria da gure jatetxea, produktuak ez direlako kanpotik ekarri behar.

Gure negozioak bezeroekiko hurrengo arazo hau konpontzen du: bezeroek jatetxe mota hau hiritik gertu edukitzeko aukera izatea, ez baitago horrelakorik hiri inguruan.

Honetaz gain, jatetxean soberan gelditutako jakiak, laguntza sozialari emango dizkiogu, haiek beharra duen jendeari emateko. Soberan gelditzen zaigun janari sukaldatua ere donatu egingo diogu laguntza sozialari.